

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **59/2026 Mozioa, ekainaren 12koa, indarrean dagoen foru-araudia hizkuntza inklusiboaren irizpideetara egokitzeari buruzkoa**

Arabako Batzar Nagusi hauetako Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Batzordeak, 2026ko ekainaren 12an egindako bileran, mozio hau onetsi zuen:

59/2026 Mozioa, ekainaren 12koa, indarrean dagoen foru-araudia hizkuntza inklusiboaren irizpideetara egokitzeari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote indarrean dagoen foru-araudi osoa pixkanaka hizkuntza inklusiboaren eta ez-sexistaren irizpideetara egokitzeko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2022-2026ko V. Foru Planaren BG.3 Helburuan (genero-ikuspegia lan-prozeduretan) ezartzen den bezala.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote foru-arauen proiektuak eta gainerako araugintza hizkuntza inklusiboaren irizpideen arabera doitu eta egin ditzala.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote, beharrezkoa balitz, argitara ematen dituen dokumentu guztietan hizkuntza inklusiboa erabiltzea bermatzen duten irizpideak eta jarraibideak indartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 12a

*Lehendakaria*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**